Lasto Distiratsu

Daniel Pennac

Sugar Beltzak zazpi otsokume zituen. Horietatik bost beren amaren begien kolore marroi gorriztakoak ziren. Burugorriak deitzen zieten. Seigarren otsokumeak, Otso Urdinek, izoztutako ura bezain urdina zuen ilea. Zazpigarrena, otsokume eme hori txiki bat, urre-izpi bat bezalakoa zen. Berari begiratze hutsarekin begiak itxiarazten zizkizun. Senideek Lasto Distiratsu deitzen zioten.

Otsokumeak hazi eta otso gazte bihurtu ziren. Baina inoiz ez zuten gizaki bat ikusi. Gertu ez behintzat. Mendixka altuenetik begiratzen zieten gizakiei. Bi hanken gainean ibiltzen ikusten zituzten. Baina nolakoak ziren gertutik?

Amak gizakiei buruzko istorioak kontatzen zizkien, baina ez zituzten beti ulertzen. Behin esan zien “Gizakia bildumagilea da”.

Lasto Distiratsu ehiztari bikaina zen. Burugorriak baino azkarragoa zen. Sugar Beltzek baino ikusmen eta entzumen hobea eta Otso Urdinek baino mutur sentikorragoa zuen.

Bere muturra airean zuela gelditu eta esaten zuen:

—Sagu bat dago!

—Non? —galdetuko zuten Burugorriek.

—Han!

Hirurehun metrora zegoen puntu bat seinalatuko zuen berak.

Hara iristerakoan konturatuko ziren sagua lur azpian zegoela.

Burugorriak harrituta zeuden.

—Nola zenekien?

—Nire sudurra — erantzun zuen.

Udan, ahateak ehizatzera joaten ziren. Burugorriek isiltasunez igeri egiten zuten harrapakinerantz, sudurren puntak bakarrik utziz uretatik kanpo. Normalean ahateek sudurraren puntaren aurretik ihes egiten zieten. Lasto Distiratsuk ibaiertzean itxaroten zuen, katu bat bezala etzanda belar horian. Ahateak pisutsu hasten ziren hegan, ura igurtziz. Ahaterik lodiena bere buruaren gainetik pasatzen zenean egiten zion eraso.

—Nola egin duzu hori? — galdetzen zuten Burugorriek.

—Nire begiak! — erantzuten zuen Lasto Distiratsuk.

Bere hankak hain ziren azkarrak ezen erbiak ere harrapa zitzakeen, beste otsoren batek inoiz lortu ez zuena.

Balentria horiek egin arren, Lasto Distiratsuk aukerarik sinpleenak alferrik galtzen zituen. Behin orein zahar bat ehizatzen ari zela, bat-batean bere arreta gainetik pasatu zen hegazti batera aldatu zuen. Gora begira, bere oinekin estropezu egin zuen eta algaraka jardun zuen lurrean bueltaka zebilen bitartean.

—Ez duzu ezer serio hartzen—errieta egin zion Otso Urdinek egun batean.

—Eta zuk inoiz ez duzu gauzen alde dibertigarria ikusten — erantzun zion.

Otso Urdini ez zitzaion bere erantzuna gustatu.

—Zergatik egiten duzu hainbeste barre, Lasto Distiratsu?

Otso Urdini begietara begiratu eta honela erantzun zion:

—Aspertuta nagoelako. Inoiz ez da ezer gertatzen; inoiz ez da ezer aldatzen!

Aspertuta zegoelako ikusi nahi zuen zerbait berria Lasto Distiratsuk. Gizakiak gertutik ikusi nahi zituen.

Gau batean izan zuen bere aukera. Ehiztari talde bat otso-familiaren arrastoaren bila zebilen, irrikaz. Kanpamentua ezkutalekutik oso urrun ez zegoen soro batean zeukaten. Lasto Distiratsuk suen kea usain zezakeen. Egur lehorraren txinpartak ere entzun zitzakeen.

Hori da, prest nago, esan zion bere buruari. Egunsentia baino lehen itzuliko naiz. Azkenean lortuko dut nolakoak diren ikustea. Guztiei bizitza interesgarriagoa egiteko istorio bat izango dut kontatzeko.

Ordubete pasatu zen Otso Urdin zerbait oker zebilela sentituz esnatu zenean. Segituan asmatu zuen.

Aurkitu egin behar dut, pentsatu zuen. Baina ez zuen garaiz aurkitzea lortu.



Ehiztarien kanpamentura iritsi zenean, gizonak suaren argitan dantzan ikusi zituen soka gogor batekin zuhaitzetik zintzilik zegoen sare baten inguruan. Sarearen barruan Lasto Distiratsu zegoen, hortz-haginak amorruz karraskatzen. Zakurrak sarearen azpian saltoka ari ziren ero moduan.

Sokari kosk egiten badiot, pentsatu zuen Otso Urdinek, sarea zakur horien erdian eroriko da. Haientzako azkarregia da, eta ihes egingo dugu. Suaren gainetik salto egin behar zuen, eta hori batzuetan otsoei ez zaie gustatzen. Baina modu bakarra zen eta azkar egin behar zen. Ez zegoen beldurtzeko denborarik. Sorpresaz harrapatu behar zituen.

Jada airean zegoen, sugarren gainean, gizonen gainean eta sarearen gainean. Sarea urratu zuen hortzekin eta oihukatu zuen:

—Ihes egin, Lasto Distiratsu!

Gizonak eta beren zakurrak oraindik ere gora begiratzen ari ziren gaueko airean, nahastuta.

Lasto Distiratsuk zalantza egin zuen.

—Sentitzen dut, Otso Urdin, Nik...

Eta ondoren guztia nahaste-borraste bat izan zen. Otso Urdinek bi zakur sugarretara zuzendu zituen.

—Ihes egin eta familia zaindu!

Otso Urdinek Lasto Distiratsu jauzi ikaragarri bat egiten ikusi zuen. Ondoren gauean desagertu zen.

Ez zegoen ospatzeko denborarik. Gizon bat zegoen bere aurrean adar bat astintzen. Kolpe izugarri bat jaso zuen. Otso Urdinek bere burua lehertzeko zorian zegoela sentitu zuen. Ondoren izarrez beteriko iluntasuna etorri zen eta biratzen ari zen, erortzen.

Esnatu zenean bakarrik zegoen. Zoo batean amaitu zuen, ezagutzen ez zituen eta bera bezala kaioletan sartuta zeuden animaliez inguraturik.

“Gizakia bildumagilea da”.

Orduan ulertu zuen bere amaren hitzen esanahia.

1.
Zergatik deitu zioten otsokume emeari Lasto Distiratsu?

(A) Bere begiak urre-izpi bat bezalakoak zirelako.

(B) Ilea urre-izpi bat bezalakoa zuelako.

(C) Urre-izpi bat bezain azkarra zelako.

(D) Urre-izpi batekin jolasten zelako.

2.
Zerk egiten zuen Lasto Distiratsu gainerako otsoak baino ehiztari hobea?

(A) Gainerakoak lo zeudenean joaten zen kanpora.

(B) Aukera bakoitza serio hartzen zuen.

(C) Bere amaren istorioak arretaz entzuten zituen.

(D) Bere zentzumenak azkarragoak eta zorrotzagoak ziren.

3.
Ehizatzerakoan, Lasto Distiratsu “katu bat bezala belar horian etzaten zen”. Zergatik laguntzen zion horrek ehiztari hobea izaten?

1

4.
Zer harrapa zezakeen Lasto Distiratsuk gainerako otsoek inoiz harrapatu ez zutena?

(A) Oreina.

(B) Erbiak.

(C) Ahateak.

(D) Saguak.

5.
Zergatik batzuetan Lasto Distiratsuk arrakastaz ehizatzeko aukerarik sinpleenak alferrik galtzen zituen?

(A) Goregi jauzi egiten zuelako.

(B) Arreta galtzen zuelako.

(C) Izutu egiten zelako.

(D) Bere bidea galtzen zuelako.

6.
Zein kexa xuen Otso Urdinek Lasto Distiratsuri buruz?

(A) Inoiz ez zuela ezer serio hartzen.

(B) Algaraka aritzen zela.

(C) Berak baino animalia gehiago aurkitzen zituela.

(D) Gainerako otsoak baino azkarragoa zela.

7.
Lasto Distiratsuk aspertua zegoelako, zer egin nahi zuen?

(A) Ehiztari hoberena bihurtu.

(B) Gizakiak gertutik ikusi.

(C) Barre egiteko gauzak aurkitu.

(D) Bildumagile bihurtu.

8.
Zeri egin zioten ehiztariek Lasto Distiratsuri?

(A) Zoo batera bidali.

(B) Makila batekin jo.

(C) Soka batean lotu.

(D) Ibaira bota.

9.
Zein dira Otso Urdinek Lasto Distiratsuri ihes egiten laguntzeko egin zituen bi gauza?

1 **1.**

1 **2.**

10.
Zergatik esan zuen Lasto Distiratsuk, “Sentitzen dut, Otso Urdin”?

1

11.
Zerk ulertarazi zizkion Otso Urdini bere amak esandako hitzak (“Gizona bildumagilea da”)?

(A) Bakarrik esnatu zen.

(B) Zoo batean esnatu zen.

(C) Ehiztariak gertutik ikusi zituen.

(D) Lasto Distiratsu sare batean ikusi zuen.

12.
Aukeratu ondoko hitzetatik zure ustez Lasto Distiratsu deskribatzen duen hitz bat.

- ◯ Txoriburua.
- ◯ Kuriosoa.
- ◯ Ausarta.

Adierazi istorioan egin duen zerk pentsarazten dizun hori.

2

13.
Badakizu Otso Urdin nolakoa den egin eta esan duenagatik.
Deskribatu Otso Urdin nolakoa zen eta adierazi horren adibide diren egin edo esan dituen bi gauza.

3

14.
Otso Urdin Lasto Distiratsu baino izenburu hobea izango litzatekeela uste al duzu?
Egiaztatu zure erantzuna.

- [ ] Bai.
- [ ] Ez.

Istorioko zerk pentsarazten dizu hori?

2

Original ID	ShinyStraw
Title	Shiny Straw
Answer code	
Images	